

Euskal Herrian errotze handia duten ia 200 adingabe blokeatuta daude Ukrainatik atera ezinik


*Asociación CHERNOBIL elkarteak "benetako ahalegina" eskatu du herrialdearen
iparraldean dauden herrixka txikietan bizi diren haurrak ebakutzeko*

• TXERNOBILGO HAURREN EGOERA

Asociación CHERNOBIL elkartea 1996az geroztik ari da lanean Txernobilgo kutsadura nuklearrak kaltetutako haurrak aldi baterako modu jarraian bertatik ateratzen. Orain arte, gure erakundearen helburua baliabiderik gabeko adingabeen osasuna hobetzen laguntzea zen, urtean 40 egunez ingurunea utz zezaten. Horretarako, boluntario talde bat Ukrainara joaten zen urtero. Duela hamarkada bat zentralaren inguruako, Ivankiv eskualdeako, landa-herrixka txikietan zentratu genuen gure lana. Herrigune txikiak dira, hala nola, Orane, Makarivka, Varivsk, Olyva, Obukhovychi, Termakhivka edo Dytiatky. Etxe askotan ez dute urik eta autohorniduratik bizi dira batez ere.

Ivankiv eskualdeatik hurbilen dagoen muga segurua Poloniakoa izango litzateke, handik 500 km ingurura. Beraz, familien baliabide ezagatik eta distantzia beragatik, HERRIAK UZTEA PENTSAEZINA DA BERAIENTZAT. Tropa errusiarrek herrixkak bonbardatu dituzte Bielorrusiatik hegoaldera igarotzean, etxeak suntsitu dituzte, etxaldeak erre, komunikazioak apurtu, argindarra eta gasa eten eta biztanleria zibila erasotzen eta mehatxatzen dute. Familiek euren etxeetako sotoetan nekez babes dezakete. Hamar bat adingabe baino ez ditugu mugara bidean, Kievetik hurbilago bizi zirenak edo errusiarren inbasioak inguru horretatik hartu zituenak.

Horregatik, GIZA-KORRIDORE SEGURU ETA BERMEEKIN SORTZEA EXIJITZEN DUGU, IPARRALDEKO BIZTANLERIAREN EBAKUAZIOA BIDERATZEKO. Korridore hau ez dago mahai gainean, herrigune handietara iristen ez delako. Populazio ahulenak diskriminazioa jasaten du berriz ere: lehenik Txernobilgo istripuarengatik, gero izan zituen ondorio sozio-ekonomikoengatik eta orain ahaztuta, berriz ere, gerran.



Errealistak gara eta badakigu asteak pasa daitezkeela, edo hilabeteak, Txernobil inguruko familiak Ukrainatik atera arte, hala nahi badute. Horregatik, 2001/55/EE ZUZENBIDEA DENBORAN INDARRAN MANTENTZEA ESKATZEN DUGU, Europar Batasuneko estatu kideek Ukrainako errefuxiatuen ostaturia eta sostengua bermatzeko duten betebeharra jasotzen duena, baldintza burokratiko eta legalak ahalik eta gehien murriztuz eta besteren kontura lan egin dezaten ahalbidetuz. Ez genuke nahi berriro diskriminazio berri bat jasatea.

• GURE FAMILIAKOAK DIRA/SON PARTE DE NUESTRA FAMILIA

Kontutan hartzen ari ez den alderdi bat ere jarri nahi dugu mahai gainean. Azken uda (2019) Euskal Herrian igaro zuten 192 neska-mutilak GURE SENITARTEKOAK DIRA.

Beraien harrera-familiatan errotze handia duten adingabeak dira, horietako batzuek 10 urte daramatzate urtean 2 edo 3 hilabetez etortzen. Beste batzuk 9, 8, 7... Argi dugu legez ez direla hemengo herritarrak, baina hala dira, izan ere, gure etxeetan daudenean. Gure seme-alaben anai-arrebak dira, auzokoekin, familiarekin, auzoko jendearekin harremana dute, koadrila... Komunitate guztiak egunero galdetzen digu noiz atera ahal izango ditugun gerratik.

Honengatik, EUSKAL HERRIAREKIN HAUR HAUEK DUTEN ERROTZE ETA LOTURA KONTUAN HARTZEKO ESKATZEN DUGU eta, honen ondorioz, Ukrainako iparraldean korridore humanitario bat lortzeko AHALEGIN GEHIGARRIA egin dezaten. Legez ezin da exijitu, baina moralki arrazoizkoa da. Asociación CHERNOBIL elkartearentzat, familiak berriz elkartzeaz ari gara.

Adingabeak gatazka-eremutik ateratzeko orduan, erakundeek eskatu ziguten harrera- familiekin aurreko lotura zuten haurrek etorri behar zutela lehenengo, beraz, errealitate hori ere kontuan hartzen dute haien ere. 192 neska-mutilez (eta haien anai-arreba adingabeaz) ari gara. 400 adingabe baino gehiago ebakatu eta ostaturia emateko gaitasuna dugu. Haur guzti hauek, zuten abiapuntua kontuta hartuta, gosea pasatzen has daitezke laster.



Reg
istr
o
de
Aso
cia
cio
nes
del
Gob
ier
no
Vas
co
con
el
no
el
nº
B/0
B/0
56
82/
96
Y
CIF
6
48.
79
7.0
21
•
Eus
ko
Jau
nlar
itzar
ko
Elk
art
e
Err
old
ako
ZK
B/0
56
82/
96
eta
IFK
6
48.
79
7.0
21

• DIRUA BILTZEKO KANPAINA

Egoera horrela, eta asociación CHERNOBIL elkarte ere ezin duelako laguntza humanitario materialarekin familia hauengana iritsi, "ERRADIAZIOA ETA ORAIN, GUERRA" dirua biltzeko kanpaina jarri dugu abian.

Gure helburua familia eta komunitate hauetan azaleratuko diren oinarrizko beharrei erantzuna ematea Ukraina bertatik. Horretarako, urtez gurekin lanean aritu den konfiantzazko boluntario-sarea dugu. Bildutako diru guztia elikadura, botika, jantzi, putzuen konponketa edota baliabiderik gabeko familien azpiegitura beharrei erantzuteko erabiliko da BERE OSOTASUNEAN. Eta, hala badagokio etorkizunean, adingabeak eremu seguru batera mugitzeak eragingo lituzkeen kostuak murriztea.

Kanpaina honetarako bakarrik sortutako kontu-zenbakia hau da: (La Caixa) ES62 2100 6491 1222 0003 6970.

• ESKER ONAK

Bizi dugun egoera gogor honetan, eskerrak eman nahi ditugu jasotako maitasun eta elkartasun adierazpenek guztiengatik. Dohaintzetatik hasi eta babesu eta kezka adierazteraino, harrera berrietarako eskaintzen ari diren familiei edota baliabideak luzatzen dizkiguten erakundeei.

Asociación CHERNOBIL elkarte helburu partekatuak dituzten erakunde publiko eta pribatuekin edo elkarteekin elkarlanean ari da. 25 urte baino gehiagoko esperientzia dugu eta boluntario sare zabala eskaintzen dugu, hemen eta Ukrainan, modu nekazinean lan egiten duena.